




**Mondragon
Unibertsitatea**

Humanitate eta Hezkuntza
Zientzien Fakultatea

2017 / 2018 IKASTURTEKO



www.mondragon.edu/huhezi

AURKIBIDEA



SARRERA ETA
AIPAMEN
HISTORIKOA

4



TXOSTEN AKADEMIKOA

- graduak
- graduondoak eta etengabeko prestakuntza
- ikerketa eta transferentzia

22

EGOERA
EKONOMIKO-FINANTZARIOA



24

KUDEAKETA-ORGANOAK



26

HUHEZIKO
LANGILEAK

SARRERA ETA AIPAMEN HISTORIKOA



2017-2018 ikasturtean zehar gogotsu ekin diogu gure strategiari Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean (HUHEZI) parte hartzen dugun guztiok. Berriro ere, partaidetza zabal eta irekiaren aldeko apustua egin dugu: estrategia aurrera ateratzeko, hainbat ekintza eta espazio ireki ditugu. HUHEZI osatzen duten komunitateak eta hainbat interes taldek parte hartzeko gune berriak sortu dira.

Ardatz estrategikoetatik abiatuta, irakaskuntzako jardueren berrikuntzan bidea egin dugu; baita LLL jardueren eta I+T jardueretan ere. Hori lortzeko, pertsonen gaikuntza eta garapen profesionala lehenesteko hautua egin dugu.

Hezkuntza-berrikuntzarako espazio berrien sorrera proposatzen da. Gure kontakizunean azpimarratu egin behar dugu gure unibertsitateak sistemako beste batzuek ez bezalako espazioak dituela ikaskuntzarako. Ikaslearen campuseko bizipena (bertatik bertarakoa edo birtuala) birsortzeak unibertsitate kooperatibo gisa ditugun ezaugarrietako bat izan behar du.

2017-2018 ikasturteko datu eta gertakizun nabarmenenak jasotzen ditugu honako lerro hauetan:

Arlo akademikoari dagokionez, aurrez aurreko gradu-ikasketetan, Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan eta Ikus-entzunezko Komunikazioan 886 ikasle izan ditugu guztira.

Aurrez aurreko edo presentziazko graduaz gain, berriro ere egokitzapen-ikastaroak eskaini dira blended modalitatean (aurrez diplomadunak direnei gradu-titulua lortzeko aukera ematen zaie). 23 ikasle izan ditugu guztira. Bestalde, bigarren gradua edo aipamena eta gradu osoa online egiteko aukera eskaini da ikasturte honetan. Bigarren graduan / aipamenean guztira 131 ikasle izan ditugu, eta online graduan 62 ikasle. Online modalitatean, beraz, 216 ikasle izan ditugu guztira.

Graduak -aurrez aurrekoak eta blended modalitatekoak- kontuan harturik, 1.102 ikasle izan ditugu guztira.

Graduondoko ofizialen arloan, 2017-2018 ikasturtean lau master ofizial eskaini dira: *Derrigorrezko Bigarren*

Hezkuntzan eta Batxilergoan, Lanbide Heziketan eta Hizkuntzen Irakaskuntzan irakasle gisa aritzeko gaitzen duen unibertsitate-masterra, Hezkuntza Testuinguru Multikultural eta Eleaniztunetan unibertsitate-masterra (EKOMU), Berrikuntza Metodologikoko Proiektuen Garapena Hezkuntza Erakundeetan unibertsitate-masterra (BERRIMET), eta Gizarte Ekonomia eta Enpresa Kooperatiboa (MCOOP), azken hori Oñatiko Enpresagintza Fakultatearekin batera.

Graduondoko ikasleak (master ofizialetan nahiz titulu propioetan) 192 izan dira guztira. Lau unibertsitate-master ofizial, bi aditu-titulu eta espezializazio-diploma bat eskaini dira.

Ikasleen mugikortasunari dagokionez, 117 ikasle joan dira atzerrira ikasketak edo curriculum-praktikak egitera. Horietatik 51k sei hileko bat egin dute nazioarteko unibertsitatearen batean (Europar, batez ere), eta praktikak 30ek Europar egin dituzte, eta 36k Latinoamerikan.

Atzerriko 12 ikasle izan dira gurean mugikortasun-programak egiten ingelesez.

Bestetik, etengabeko prestakuntzaren arloan ere hainbat lan egin dira Hezkuntza, Komunikazio eta Lankidetzaren arloan. Aipatzekoa da LANKI ikertegitik eskainitako prestakuntza kooperatiboan 48 formakuntza-saio egin direla (816 parte-hartzaileekin). Hezkuntzari dagokionez, ikastetxeetatik etorritako eskaerari erantzun zaio, eta 709 pertsonak hartu dute parte programa horietan. Eta ikus-entzunezko komunikazioaren eremuan, «Komunikazioa erakundeetan» ikastaroaren hirugarren edizioa eskaini da, 16 ikaslerekin.

Ikerketaren arloan, ikertzaileen parte-hartzea handia izan da jardunaldi eta kongresuetan, eta argitalpenen arloan ere emaitza oparoa dela esan dezakegu. Horrela, 49 artikulua argitaratu dira (horietatik 11 inpaktuzko ertaineko zerrendetako aldizkarietan), 3 liburu oso eta 5 liburu-kapitulu. 18 ikerketa-proiektutan parte hartu dugu, eta 43 transferentzia-ekimen gauzatu dira erakunde publiko eta pribatuetan. Horrez gain, 14 ikerketa-jardunaldi antolatu dira, eta gizarteko 39

zabalkunde- edo dibulgazio-ekintzatan parte hartu dugu.

Tesiak egiteko aurreko urteetan izandako liberatze-politikak bere emaitzak eman ditu; HUHEZIn dagoeneko 43 doktore ditugu (langileen %66,2), horietatik 30 akreditatuta (%69,8). Horrez gain, 22 lankide doktore izateko bidean daude.

HUHEZI Koop. E-ren helburua da gure komunitatea osatzen dugun pertsona guztien garapen profesionala bermatzea. Pertsonen garapenerako markoa HUHEZIn

- Harrera-planaren diseinua berraztertu eta eguneratu dugu.
- Gaikuntza-planak eta proiektu estrategikoak lerrotatu ditugu.
- Hizkuntza-gaitasunak bultzatzeko prozesu sendoa eskaini dugu.
- Norberaren garapenerako ad hoc eskaerak luzatu ditugu.
- Langile doktoregai ikerlarien eta ikertaldearen garapena bermatzeko epe luzeko proiektzioa eta gaikuntza-plana gauzatu ditugu (tesi-liberazioak).
- PIF politika berria aztertu eta diseinatu dugu.

Urtero legez, Literatur Topaketak antolatu ditu Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak, Genero identitateak: izateko eta esateko erak izenpean. 15. edizio honetan, parte hartu dute Uxue Alberdi, Miren Amuriza eta Dorleta Kortazar bertsolariak eta Maria Delgado, Josune Gorostegi, Arantxa Urretabizkaia eta Txaro Gallego idazleak.

Bestetik, HUHEZINEMAREN XI. edizioa antolatu da, eta azken urteetako arrakastari eutsi dio aurkeztutako filmen eta jaialdira etorritako gonbidatuen kopuruari dagokionez. Hedabideetan izandako oihartzuna ere bikaina izan da. Berrikuntza ugari izan dira aurtengo edizioan: Mundukide saria sortu dugu, euskal websailen topaketa antolatu dugu, eta zinema-efektu berezien *masterclass* parte-hartzailea egin dugu Aretxabaletako plazan herri guztiarentzat. Ekitaldia martxoaren 21etik 23ra izan zen Aretxabaletako Kultur Etxean, eta apirilean emanaldiak antolatu genituen Azkoitian eta Ordizian. Laugarren urtez, Orona saria banatu dugu Donostiako

Zinemaldian egiten den Zinema Ikasleen Nazioarteko Topaketan, eta nazioarteko bost film labur berritzaile aurkeztu ditugu HUHEZINEMAn.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak eta Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak elkarlanean antolatuta, «Hezkuntza eraldatzeko bidaian elkarrekin aurrera» jardunaldia egin zen Mondragon Unibertsitateko Orona-Ideo campusean. Goiz osoko jardunaldiak bi eremu estrategikotan jarri zuen azpimarra: DBH eta Batxilergoko hizkuntza-proiektu integraletan eta STEAM pedagogietan. Jardunaldiaren helburua izan zen hezkuntza-arloko eragileen elkarlana bultzatzea eta berrikuntza sustatzea. Horretarako, Xavier Aragay adituaren hitzaldiaz gain, ekitaldian partekatu ziren Euskal Herriko zenbait ikastetxetan abian jarritako egitasmo berritzaileak. Hezkuntza-arloko 160 profesionalak baino gehiagok eman zuten izena jardunaldian.

Mondragon Unibertsitateko LANKI Kooperatibismoaren Ikertegiak urtero antolatzen duen Kooperatibagintza Topaketen VI. edizioa egin zen Eskoriatzako campusean: «Kooperatibak gizarte-eraldaketaren ekinbidean berritzen». Kooperatibismoaren eta gizarte-eraldaketaren alorretako esperientziak trukatzea eta jardunbide berritzaileak ezagutzea izan ziren jardunaldiaren helburuak.

HUHEZlko Kirol Zerbitzuak, 2017-18 ikasturtean, 327 erabiltzaile izan ditu. Bestalde, zerbitzuaren ildo estrategiko nagusiak «osasuna sustatzea» izaten jarraitu du, irteerak, ikastaroak, kirola, lehiaketa eta aisialdiko jarduerak albo batera utzi gabe. Aurrerantzean ere, erabiltzaile kopurua handitzea izango da Kirol Zerbitzuaren erronka nagusia, batez ere, emakumeen parte-hartzea bultzatuz.



AIPAMEN HISTORIKOA. IKUSPEGI KRONOLOGIKOA

► 1976. Eskoriatzako Irakasle Eskola sortu zen.

Ikastolek garai hartan zuten arazo larria (ez baitzen irakasle tituludun euskaldunik) konpondu guran, Hezibide Elkarateak -Debagoienako hezkuntza-kooperatibak batzen zituen elkarateak, alegia-Eskoriatzako Irakasle Eskola sortu zuen. Hasiera hartan, Salamancako Unibertsitate Pontifizioaren ikasgela moduan hasi zen eskolak ematen.

► 1978. Onespren ofiziala.

Hezkuntza Ministerioak onartu egin zuen Eskoriatzako Irakasle Eskolaren ikasketa-plana, aurrerantzean Bilboko Unibertsitateari (gero EHU/UPV) atxikita.

► 1979. Lehen promozioa.

39 irakasle irten ziren urte hartan, irakasle-diploma eskuan.

► 1980. Irakasle Eskola, kooperatiba.

Bere ingurunean txertaturik, urrats logikoa izan zen eskola kooperatiba bihurtzea.

► 1981. Titulurik gabeko irakasleen 1. promozioa.

Ikastoletan edo herri-eskoletan euskaraz irakasle-titulu barik ari ziren 147 maisu-maistrak eskuratu zuten titulua urte hartan. Guztira, titulu bako 700 maisu-maistrak amaitu zituzten ikasketak Eskoriatzako Irakasle Eskolan.

► 1984. Haurren gaineko dokumentazio-zentroa.

Sei urte bitarteko haurren gaineko dokumentazioa biltzen, antolatzen eta zabaltzen hasi zen Eskola. Geroago, Jakingarriak aldizkaria argitaratzen hasi zen, gai horren inguruan.

► 1985. Irakasleen birziklatze-programa.

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailarekin batera, lanean ari ziren irakasleak egunean jartzeko ikastaroak antolatzen hasi zen Eskola.

► 1988. Bideo didaktikoak.

Helburu didaktikoekin egindako bideo-bilduma baten lehen alea («Piti gaztagile») argitaratu zen.

► 1990. Euskararen normalizazioa Administrazioan.

Ikastaro bereziak antolatu ziren euskal administrazioaren funtzionarioen hizkuntza-eskakizunik jasoenak lantzeko.

► 1992. Eskola-liburugintzan.

Euskarazko irakaskuntzan eskola-liburuak behar zirela-eta, dozena bat liburu argitaratu ziren.

► 1996. Hezkuntza Berezia.

Hezkuntza-premia bereziak zituzten haurrei irakasteko espezialitatea sortu zen. Eskola ikaslez urri zebilen garaian, ikasle asko erakarri zituen espezialitate honek.

► 1997. MUren Humanitate Fakultatea.

Eskoriatzako Irakasle Eskola Mondragon Unibertsitatearen (MU) Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultate bihurtu zen. **Humanitateak-Enpresa lizentzia ematen hasi zen.**

► 1999. Eraikin berria.

Hasierako eraikina txiki geratu zela-eta, Gizabidea fundazioak alboko S. Viator eraikina (XVII. mendekoa) erosi zuen Humanitateen Fakultatea bertan jartzeko.

Lehen masterra.

«Enpresa Proiektuen Zuzendaritza» izeneko masterra sortu zen. 400 bat hautagai aurkeztu ziren, baina 20 bakarrik sartu ziren galbahe zorrotza igaro ostean.

► 2000. Psikopedagogia-lizentzia.

Bigarren zikloko lizentzia zen, eta irakaskuntza eta gizarte eleaniztunetan sor daitezkeen arazoei hobeto erantzuteko sortu zen. Lehen urtean 33 ikasle izan zituen.

► 2001. Ikasketak, online

Psikopedagogia-ikasketak eta master bat sarean jarri ziren.

Humanitateak-Enpresako 1. promozioa ekainean irten zen.

Bi master berriren eskaintza: Informaziorako eta Komunikaziorako Teknologien prestakuntzan eta Hezkuntza Zuzendaritzan.

LANKI sortu zen, MUko Lankidetzaren Ikertegia. Hiru esparru nagusi izan zituen hasieratik: kooperatibismoa, gizartean esku-hartzea eta garapenerako lankidetzak.

«Esperientzia Komunitarioen Truke Programa»: lehen edizioa antolatu zen Hego hemisferioko komunitateen eta Euskal Herriko eragile kooperatibo eta autoeratuaren artean.

Lankidetzak: Arizmendiarrietaren eraldaketa-proiektua liburua argitaratu zen. **LANKI ikertegiaren lehen argitalpena** izan zen; orduetik aurrera, hainbat argitalpen eta material didaktiko sortu da kooperatibismoaz eta gizartearen erronkez.

► 2002. Psikopedagogia karreraren baitan **Esku-hartze Psikopedagogia** jarri zen abian, 30en bat ikaslerekin.

Mundukideren interkooperazio-sistemaren garapeneraren bultzatzaile izan zen LANKI ikertegia.

► **2003. AOI-PBL metodologia** ezartzen hasi zen sistematikoki 1. mailan, Haur Hezkuntzan oso-osorik, eta bestelako espezialitateetan ikasgai komunetan soilik.

Hezkuntza fisikoa. Irakasle ikasketetako espezialitate berria hasi zen, 32 ikaslerekin.

► **2004. Pertsona- eta talde-garapenerako gestio-unitatea** sortu zen.

Prestakuntza pedagogikoa titulazioa ezarri zen.

Irakasle balioaniztuna izeneko ikasketak eskaintzen hasi zen.

► **2005. Ikus-entzunezko Komunikazioan** lizentzia sortu zen. Karrera honen misio edo eginkizuna da komunikatzaile integralak prestatzea. Lana edonon egiten dutela ere, gai izango dira erakunde horretako era guztietako komunikazio-beharrei erantzuteko. 36 ikaslerekin jarri zen abian lehenengo maila.

«Arrasateko Kooperatiba Esperientziaren zentzuaren gaineko gogoeta-prozesua» egin zen kooperatibetan. Prozesu haren garapenean, LANKI eragile funtsezkoa izan zen. Diagnostiko hartatik abiatuta, eta 2007an MONDRAGON Taldearen Kongresu Kooperatiboan berretsita, azken urteotan kooperatibak biziberritzeko hainbat estrategia jarri dira martxan.



Urte berean, «**Norbere garapena eta taldeen lidergoa**» izeneko aditu-titulua ezarri zen.

- ▶ **2006.** Irakasle-ikasketetan, **Mendeberri proiektuaren 1. promozioa** kaleratu zen. «**Kulturartekotasuna eta eleaniztasuna XXI. mendean**» ikastaroa eskaini zen. **Abian** jarri ziren **Euskara Plana** eta **Multimedia gunea**. **Garabide elkartean** sorreran parte hartu zen LANKItik. Euskal Herrian gauzatutako hizkuntzen berreskurapenerako estrategiak eta esperientzia Hegoaldeko herri indigenekin partekatzeke plataforma da.
- ▶ **2007. «Euskal Kulturgintzaren Transmisioa»** graduondokoa eskaini zen. **HUHEZINEM**aren lehen edizioa egin zen. HUHEZiko programako **lehen tesia** aurkeztu zen. **Hezkuntza Kooperatibo Eredu berriaren** diseinua eta inplementazioa hasi zuen LANKIk MONDRAGONeko Gestio Sozialarekin lankidetzan. Harrezkero, prestakuntza kooperatiborako prozesu zabalak ireki dira MONDRAGON Taldeko kooperatibetan. LANKIk, Mundukiderekin batera, elkarlana abiatu zuen Brasilgo Lurrik Gabeko Nekazarien Mugimenduarekin (**MST**). Lehenengo Erasmus ikasleak etorri ziren, sei hilabetez, HUHEZIn ikastera.
- ▶ **2008. «Ikus-entzunezko Komunikazioa»** lizentziaturaren 1. promozioa kaleratu zen. ANECAk **Haur Hezkuntzan Gradua, Lehen Hezkuntzan Gradua eta Ikus-entzunezko Komunikazioan Gradua** onartu zizkion HUHEZlri. HUHEZik **Urrezko Bikain** ziurtagiria lortu zuen. «**Kooperatibagintza**» aditu-tituluaren lehen edizioa eskaini zen, kooperatibetako eragileak prestatzeko eta kooperatibak biziberritzeko estrategietan eragiteko bokazioz.
- ▶ **2009. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eta Batxilergoan, Lanbide Heziketan eta**

Hizkuntzen Irakaskuntzan irakasle gisa aritzeko gaitzen duen unibertsitate-masterra eta Ekonomia Solidarioaren masterra eskaintzen hasi ginen.

ANECAk **Hezkuntza Testuinguru Multikultural eta Eleaniztunetan** unibertsitate-master ofiziala (**EKOMU**) eta **Berrikuntza Didaktiko Metodologikoko Proiektuen Garapena Hezkuntza Erakundeetan** unibertsitate-master ofiziala (**BERRIMET**) onartu zizkion HUHEZlri.

Boloniara egokitutako **Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Ikus-entzunezko Komunikazioa** graduen inplementazioa.

Bagara prozesuaren sorrera bultzatu zen LANKItik. Prozesu honen xedea da Debagoienan garapen komunitario autoeratu bultzatzea.

- ▶ **2010. Hezkuntza Testuinguru Multikultural eta Eleaniztunetan** unibertsitate-master ofiziala (**EKOMU**) eta **Berrikuntza Didaktiko Metodologikoko Proiektuen Garapena Hezkuntza Erakundeetan** unibertsitate-master ofiziala (**BERRIMET**) eskaintzen hasi ginen.

Ekonomia solidarioari buruzko masterraren lehen edizioa egin zen, Latinoamerikako garapen sozioekonomikoko esperientzia autoeratu zuzendua.

MU Telebista sortu genuen.

- ▶ **2011. «Jatorrizko hizkuntzen eta identitateen berreskurapenerako» aditu-titulua** martxan jarri zen, munduko komunitate indigenentzat.

- ▶ **2012.** Vic-eko Unibertsitateak eta HUHEZIk eskainiko dugun «**Berrikuntza eta esku-hartzea hezkuntzan**» **doktorego-programa onartu ziguten** UNIBASQek eta ANECAk.

Aretxabaletako campus berriaren obrak egin ziren.

«**Komunikazioa erakundeetan**» aditu-titulua eskaintzen hasi ginen.

- ▶ **2013.** HUHEZlren **Aretxabaletako campus berriaren eraikina inauguratu zen.**

Vic-eko Unibertsitatearekin batera, «**Berrikuntza eta esku-hartzea hezkuntzan**» doktorego-programa eskaintzen hasi ginen.

Blended modalitatean egokitze-ikastaroak eskaintzen hasi ginen, diplomatuek graduko titulua lortu ahal izateko.

Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza graduak blended modalitatean eskaintzea onartu ziguten UNIBASQek eta ANECAK.

Oñatiko Enpresagintza Fakultatearekin batera eskaintzen dugun «**Ekonomia Soziala eta Enpresa Kooperatiboa**» (MCOOP) unibertsitate-master ofiziala onartu ziguten UNIBASQek eta ANECAK.

- ▶ **2014.** Lehenengoz eskaini zen **gradu osoa edo bigarren titulazio bat online modalitatean** egiteko aukera.

Enpresagintza Fakultatearekin batera, lehenengoz eskaini zen «**Gizarte Ekonomia eta Enpresa Kooperatiboa**» (MCOOP) master ofiziala.

Bigarren Hezkuntzako masterraren kanpo-akreditazioa lortu zen UNIBASQetik.

HUHEZIKo barne-kalitate sistemaren kanpo-akreditazioa lortu zen UNIBASQetik.

- ▶ **2014-2015** ikasturtetik hasita, **dekano berria** aukeratzeak **zuzendaritza-talde berria eta antolaketa berria** ere ekarri zituen.

- ▶ **2015-2016 ikasturtean plan estrategiko berria** diseinatu genuen **prozesu parte-hartzaile batekin**. Plan Estrategikoan berrikuntza-premia berretsi zen kolektiboan, bai arlo akademikoan bai ikerketan eta transferentzian, eta 10 proiektu identifikatu ziren.

Ikus-entzunezko Komunikazioa graduoko berrikuntza metodologikoa inplementatzen hasi ginen.

BERRIMET eta EKOMU masterren kanpo-akreditazioak lortu ziren UNIBASQetik.

- ▶ **2016-2017** ikasturtean **Lehen Hezkuntza, Haur Hezkuntza eta Ikus-entzunezko Komunikazioa** graduen akreditazioak lortu dira UNIBASQetik.

- ▶ **2017-2018** ikasturtean, proiektu arkitektoniko berriaren diseinuari heldu diogu. Campusaren diseinuan parte hartu dute Fakultateko langileek eta ikasleek.



TXOSTEN AKADEMIKOA



GRADUAK

2017-2018 ikasturtean, aurrez aurreko 178 ikasle berri izan ditugu Hezkuntzako graduetan; horietatik 65 Haur Hezkuntzako graduan eta 113 Lehen Hezkuntzakoan (bi talde egon dira Haur Hezkuntzan eta lau talde Lehen Hezkuntzan). Bestalde, Ikus-entzunezko Komunikazioko (IKO) graduan 50 ikasle berri jaso ditugu 1. mailan (eta zenbait lan-sekuentzian banatu dira taldeak). Era berean, graduen ikasketa-plangintzaren baitan prestaturiko irakasle eta komunikatzaileen seigarren promozioa atera da HUHEZItik.

Graduen berrikuntza-prozesuarekin jarraitu da: IKOk 4. maila ezarri du ikaste-emaizta eta lan-sekuentzia diziplinartekoetan oinarritutako eredu pedagogikoan. Era berean, online graduan 2. maila osoa inplementatu da «erronketan», IKOren ereduari jarraituz, eta 3. mailan proiektu pilotu bat egin da. Presentziazko HH eta LH graduetan, 1. mailan inplementatu da eredu hori.

Irakasleen prestakuntza giltzarri da prozesu hauetan. Jardun Pedagogiko eta Ikerketarako egunak baliatu dira titulazioen berrikuntza elikatzeko. Bestalde, tutoretzaren inguruko formazioa ere eskaini zaie hainbat tutoreri, eta ebaluazio-sistemaren eraikuntzan Xavier Carrera (Lleidako Unibertsitatea) izan dugu bidelagun.

Graduen berrikuntza-prozesuan Talde Eragileak (2015-2016 ikasturtean sortua) jarraitu du graduak berrikusteko oinarriak, sinergiak eta lan partekatua ahalbidetzeko lanetan.

Mugikortasun-programaren inguruko interesa areagotuz doa, eta 2017-2018 ikasturtean 129 ikasle joan edo etorri dira ikasketak edo curriculum-praktikak egitera, bi norabideetan: HUHEZItik kanpora (117 ikasle) eta kanpotik HUHEZItira (12 ikasle). Kanpora joan diren ikasleetatik 51 beste unibertsitate batera joan dira ikastera, eta 66 eskoletara eta erakundeetara.

Norakoari dagokionez, Europara joan dira 53 ikasle Erasmus programaren bidez, Latinoamerikara 36, eta Espainiako estatura 28 ikasle. Mugikortasun hau guztia sustatzeko, akordioak ditugu Europako 63 unibertsitaterekin eta 23 eskolarekin, eta Latinoamerikako 3 unibertsitaterekin eta hainbat eskola eta erakunderekin. Estatuko ikuspegiari dagokionez, 2017-2018 ikasturtean 26 ikasle joan dira praktikak egitera Andaluzia, Katalunia, Madril eta Kanariar Uharteetara, batik bat. Bestalde, Vic-eko Unibertsitatera 2 ikasle joan dira SICUE programa egitera. Azkenik, hiru graduatan eskaintzen ditugun nazioarteko programetara 12 ikasle etorri dira 30 ECTSko sei hileko bat egitera, ingelesez, gure ikasleekin batera.

Ikasleekin hainbat ekimen egin dira: Edit programan (Austria, Alemania, Finlandia, Eskozia eta Errumaniako hainbat unibertsitatek eta HUHEZIK partekatzen duten proiektua) parte hartu zuten. Hezkuntzako 1. mailako ikasleek, Ikus-entzunezko 2. mailako ikasleekin batera, «hezkuntza» gaitzat harturik, bideo labur bat ekoitzi zuten; nazioarteko epaimahai batek egin zuten sari-banaketa. Bestalde, Lehen Hezkuntzako 3. mailako ikasleekin aurreko ikasturtean hasitako «Break» proiektuarekin jarraitu da; artea, hezkuntza fisikoa eta atzerriko hizkuntza uztartuz, proiektu bat egin zuten. Euskararen inguruko hausnarketa eta motibazioa sortzeko helburuz, hainbat kultura-

ekimen egin ziren (Euskararen eguneko antzerkia, Txomin Txapel eguneko emanaldia). Jada ekimen klasiko bihurtu diren «Literatura Topaketak» eta «HUHEZINEMA» ere egin ziren: lehen, genero-identitateen bueltan egin zen, eta, urtero bezala, pertsonaia ezagunek parte hartu zuten.

Gure ikasleek Euspot txapelketan hartu zuten parte, eta Ikus-entzunezko Komunikazio graduako ikasle batek irabazi zuen sari nagusia. V. Euskarazko Eztatanda Txapelketan ere parte hartu zuten gure ikasleek, eta Ikus-entzunezko Komunikazio Graduako ikasle batek irabazi zuen hizlari onenaren saria.

Ikasleak orientatzeak leku garrantzitsua du bereziki laugarren mailan. Hainbat saio eskaini dira, bai lan-esparruan -hemen zein mundu zabalean- sartu ahal izateko eta bai ikasten jarraitzeko. Horretarako, Euskal Herriko hainbat hezkuntza-eragile eta komunikazio-aditu izan dugu Fakultatean; bertako graduondokoen eskaintza zabaldu zaie, eta lan-munduan aritzeko, hemen edota atzerrian, eman behar diren pausoak azaldu ere bai. Aukera izan dute, baita ere, ikasle ohiekien solasaldiak izateko eta beren ibilbide profesionalaz (egindako bidez, egungo egoeraz...) aritzeko. Horrekin batera, ikasleek urte osoan izan dituzte eskura MUn dagoen Lanbide Zerbitzuko kideen laguntza eta aholkularitza ere. HUHEZIKo Orientazio Zerbitzuekin ikasle egresatuei formazioa



eskaini zitzaien lehenengo aldiz. Formazioa CV, marka pertsonal eta elkarriketen inguruan izan zen.

HEZKUNTZA-GRADUAK (ONLINE/ERDI-PRESENTZIAZKO MODALITATEA)

2017-2018 ikasturtean, eskaintza erdi-presentzialean 117 ikasle berri izan ditugu.

Hiru eskaintza izan dira martxan ikasturte honetan:

EGOKITZE-IKASTAROAK

Egokitze-ikastaroen bosgarren edizioa egin da 2017-2018 ikasturtean. Aurretik diplomadunak zirenei gradu-titulua lortzeko aukera ematea izan da helburua. Gradu-ko ikasketek graduondokoa ahalbidetzen dute, eta, gero, doktorego-ikasketak egitea. Beste alde batetik, aukera zabaltzen dute lan-merkatuari begira. Ikasketa hauen hartzailea irakaslea izaten da. Hainbat forotan eman da eskaintzaren berri: webgunean, sare sozialetan, irratian, ate ireki edo sarrera libreko egunetan...

BIGARREN GRADUA / AIPAMENA

Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan graduatuei zuzendutako eskaintza da.

Eskaintza ezberdina izan da ikaslearen helburuen arabera:

Bigarren Gradua lortzeko	HHtik → LHra	LHtik → HHra
		LH – LH
Bigarren Aipamena	HH – HH	LH – AH
lortzeko	HH – AH	LH – HB
		LH – HF

HEZKUNTZA-GRADUAK ONLINE

Modalitate honen bidez, hezkuntza-graduak (Haur eta Lehen Hezkuntza) online eta euskaraz lortzeko aukera eskaini nahi izan da.

Hainbat kolektibori zuzenduta dago eskaintza hau:

- Aurretik goi-mailako ikasketak eginda daudenei (diplomadun, lizentziadun, ingeniari edo arkitektoei).



- Helduentzako unibertsitateko sarrera-proba gainditu dutenei.
- Lanbide Heziketako Goi-mailako moduluak (hezkuntza alorrekoak) + 5 urteko eskarmentua dutenei.
- Goi-mailako kirolariei.

Hiru modalitateen datuak:

Ikasle berriak (LH / HH)	
Egokitze- ikastaroak	LH: 10 HH: 5
Bigarren Gradua / Aipamena	LH: 55 HH: 21
Online graduak	LH: 14 HH: 12

Eskaintza hauetan ikasturtean izandako helburuak honako hauek izan dira: irakasleen prestakuntza sakontzen jarraitzea, online berrikuntza lehenengo pausoak ematea, eta eskaintzen hedapena finkatzea.

Ikasleekin eginiko prestakuntza-jarduerak harrera-planean sartu dira. Helburu hauek izan dituzte: ikaslea HUHEZIn hezkuntza-proiektuan kokatzea, online modalitatean ikasketak egitera bideratzea, ikasketa-planak ezagutzea, eta plataformaren erabilera trebatzea.

Irakasleekin, berriz, ikasgaien diseinuak hobetzeko eta Web 2.0 tresnen erabilera egokian trebatzeko xedez gauzatu dira prestakuntza-jarduerak, hainbat kasutan banakako formakuntza-planak diseinatu.

Mugikortasunari dagokionez, graduak azken ikasturtean praktikak Europan edo Ameriketara egiteko aukera eman zaie ikasleei Erasmus programaren bidez. Orotara, 2 ikasle izan ditugu Ameriketara eta 2 Europan.

UNIBERTSITATE-MASTERRAK

2017-2018 ikasturtean HUHEZIn 114 ikasle izan ditugu unibertsitate-masterretan.

► **Berrikuntza Didaktiko Metodologikoko Proiektuen Garapena eta Kudeaketa Hezkuntza Erakundeetan (BERRIMET) unibertsitate-masterra** *(guztiz online eskaintzen da).*

Ikasle aldetik orain arteko kopuruak gainditu egin dira, eta bi talde egin behar izan dira (47 ikasle matrikulatu baitziren guztira, 21 lehen urtekoak eta 26 bigarren urtekoak). Masterraren 8. edizioa egin da: 19 ikaslek ikerketa-ibilbidea hautatu dute, eta 28k ibilbide profesionala. Guztira Master Bukaerako 22 Lan aurkeztu dira. Ikasleen jatorriari dagokionez, 9 ikasle berri gure graduatiko ikasleak izan dira. Ikasleen nazioartekotzean urratsak egin dira, eta ikasle batek atzerrian egin ditu praktikak (Italian).

► **Hezkuntza Testuinguru Multikultural eta Eleaniztunetan (EKOMU) unibertsitate-masterra**

EKOMU masterraren 8. edizioa egin da 22 ikaslerekin (10 bigarren urtekoak eta 12 lehenengo urtekoak): ibilbide profesionalan 16 ikasle eta ikerketa-ibilbidean, berriz, 6. Edizio honetan, 8 ikaslek amaitu dute masterra, eta horietako 1ek ingelesez egin ditu practicum eta Master Bukaerako Lana eta aurkezpena. Beste batek gaztelaniaz egin ditu, eta gainontzeko guztiek euskaraz. Horrez gain, ikasleekin harremanak estutu dira, eta ikastetxeetako tutoreekin ere bai. Halaber, aztertu dira azkeneko urteotan masterra bukatu ez duten ikasleen kasuak, eta, gauzatutako kredituen arabera, ziurtagiriak luzatu dira. Bestalde, Master Bukaerako Lanak kudeatzen dituzten irakasleekin mintegi berezia egin da, beren tutoretzapean dauden ikasleen prozesua ahalik eta hoberean kudeatzeko. Aipatutakoez gain, doktorego batzordearekin elkarlanean aritu gara orientazio-saioak antolatuzko.

► **Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoan, Lanbide Heziketan eta Hizkuntzen Irakaskuntzan irakasle aritzeko gaitzen duen unibertsitate-masterra**

Masterraren 9. edizioa egin da, aurrez aurreko modalitatean; 35 ikaslerekin (33 berriak eta 2 aurreko urtekoak) osatutako taldea aritu da lau espezialitateetan: Hizkuntza eta Literatura, Teknologia, Natura Zientziak eta Matematika, Humanitateak eta Gizarte Zientziak. 2017-2018 ikasturtean matrikuletan jaitsiera egon da eta horrek talde bakarra egitera eraman gaitu.

Masterraren berrikuntza-prozesuan aurrerapausoak eman dira aurreko ikasturteetan identifikatutako erronkei ekiteko. Lehentasuna practicuma indartzean jarri dugu, hortik abiatuta masterra bere osotasunean berritzeko. Horrela, 2018-2019 ikasturtean martxan jartzeko helburuz, lanbidean ardaztutako ikaste-irakaste prozesuan oinarritzen den berrikuntza diseinatu da. Koordinaziorako espazioak, batzorde pedagogikoak nahiz tutore-mintegiak baliatu dira eredu berria irudikatu eta diseinatzeko. Horretaz gain, eredu berriak behar duen ikastetxe-sarea sortzeko, bilerak egin dira hiru sareetako (sare publikoa, ikastolak eta kristau-eskolak) ikastetxeekin.

Azkenik, eredu berriaren eraikuntza elkarlanean aritu gara Lleidako Unibertsitatearekin eta

Andorrako Unibertsitatearekin batera, eredu honen esperientziatik eratorritako indargune eta erronkak ikasi eta HUHEZiko masterrean horiek gainditzeko.

Lleidako Unibertsitateko lankideak, Jordi Coidurasek, BH eredu dualean abiatzeko lehen formazio-saioa eskaini dio BHko tutore taldeari.

► **MCOOP. Gizarte Ekonomia eta Enpresa Kooperatiboa unibertsitate-masterra**

Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza Fakultatearekin batera online eskaini dugun unibertsitate-master ofizial honetan, 10 ikasle berrik parte hartu dute 2017-2018 ikasturtean. Urtero legez, ikasleria askotarikoa izan da, bai profilari eta bai jatorriari dagokienez.

Masterraren xede nagusia da enpresa kooperatiboak eta, oro har, gizarte-ekonomiako enpresak kudeatzeko gaitasunak garatzea. Norabide horretan, arlo askotako ezagutzak landu dira; esaterako, enpresa-kudeaketa, parte-hartzea edota berrikuntza, betiere kooperatibismoaren arlo ekonomikoa eta soziala uztartze aldera.

Azkenik, azpimarratzekoa da master berriaren sorreran emandako pausoak: TeamLabs-eko lantaldearekin batera, HUHEZiko ekipoak masterraren irudikatze-ariketa egin du abendutik uztaile bitartean. Master berriko memoria azaroan aurkeztu da UNIBASQera.



ADITU-TITULUAK

Bi aditu-titulu eta espezializazio-diploma bat eskaini dira ikasturte honetan: Kooperatibismoan unibertsitate-aditua, Ekonomia solidarioaren garapenerako kudeaketa ekonomiko eta sozialean espezializazio-diploma, eta KoopFabrika: ekintzailtza sozial kooperatiboa eta ekonomia soziala unibertsitate-aditua.

► Kooperatibismoan unibertsitate-aditua

Kooperatibismoaz unibertsitateko aditu-tituluaren 10. edizioa egin da ikasturte honetan. 20 ikaslek hartu dute parte, guztiak kooperatibetako ordezkariak. Kooperatibismoaren sustapena eta ideia kooperatiboaren transmisioa ipar duen prestakuntza-eskaintza da, eta ikasleari ezagutza teoriko-praktiko sendoa eskaintzea du helburu, errealitate kooperatiboa ulertzeko eta ingurune kooperatiboak indartu eta sustatzeko. Mondragon Taldeko Gestio Sozialaren eta HUHEZIKo LANKI ikertegiaren arteko lankidetzaren emaitza da.

► Ekonomia solidarioaren garapenerako kudeaketa ekonomiko eta sozialean espezializazio-diploma

Ekonomia solidarioan garapenerako kudeaketa ekonomiko eta sozialean espezializazio-diplomaren helburu nagusia da Latinoamerikako ekonomia sozial-solidarioko erakundeak eta ekimenak sendotu eta bideragarri egiteko baliabideak eskaintzea. Mondragon Unibertsitateko hiru fakultateetako irakasleek hartu dute parte hirugarren edizio

honetan: HUHEZI, Enpresagintza eta Goi Eskola Politeknikoa.

Formazio honen bidez, kudeaketa ekonomiko eta soziala zein genero-ekitatearen arloan hainbat kompetentzia garatu dituzte 8 herrialdeetatik etorri diren ekonomia solidarioko 16 parte-hartzaileek (Bolivia, Kolonbia, Peru, Ekuador, El Salvador, Mexiko, Paraguai eta Nikaragua).

Formazio hau Mondragon Unibertsitateko LANKI ikertegiak ALBOAN Gobernu Kanpoko Erakundearekin elkarlanean gauzatu duen garapenerako lankidetzako proiektuaren baitan kokatzen da. Eusko Jaurlaritzako Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak diruz lagundu du proiektua, eta ondoko laguntzaileak izan ditu: Aretxabaletako Udala, Mundukide Fundazioa eta Arizmendiarrietaren Lagunak Elkartea.

► KoopFabrika: ekintzailtza sozial kooperatiboa eta ekonomia soziala unibertsitate-aditua

Kooperatiba Fabrika: ekintzailtza sozial kooperatiboa eta ekonomia soziala sustatzeko programaren 2. edizioa gauzatu da Gipuzkoako Foru Aldundiko 'Gipuzkoan pertsona eta enpresa parte-hartzaileak sustatzeko programa' ren baitan. Mondragon Unibertsitateko LANKI ikertegiak eta Olatukoop-ek antolaturiko egitasmoa da.

Ekintzailtza sozialaren bueltan unibertsitate-mailako formazio trinkoa eskaini da, lehenengo aldiz, Mondragon Unibertsitateko aditu-titulu eran. Bertan, ekintzailtza sozial kooperatiboaren eta garapen komunitarioaren gaineko 27 proiektu sortu dira, 42 ekintzailereren eskutik.



ETENGABEKO PRESTAKUNTZA

LANKI ikertegiak kooperatibismoaren gaineko prestakuntza-saioak eskaintzen ditu MONDRAGONeko Gestio Soziala sailarekin lankidetzan. Kooperatibetako askotariko hartzaileei -organoetako (Kontseilu Errektore, Kontseilu Sozial eta Zuzendaritza Kontseiluko) kideei eta bazkide guztiei- zuzenduriko saioak dira. Oro har, kooperatibismoaren ezaugarrietan sakontzea eta kooperatibismoa sustatzea dute helburu.

2017-2018 ikasturtean zehar 48 formakuntza-saio egin dira (guztira 368 formakuntza-ordu eta 816 parte-hartzaileekin). Aipatzekoak dira, Soraluece Koop. E. eta Ulma Handlyng Systems-en bazkideekin egindako hausnarketa kooperatibo saioak.

Hezkuntzari dagokionez, ikastetxeetatik etorritako eskaerari erantzun zaio. Eskaerak hainbat gairekin lotuta egon dira: neuroheziketa eta kirolarekin, kulturarteko hezkuntzarekin, hezkidetzaren eta generoarekin, eta hizkuntzaren lanketarekin. 709 pertsonak parte hartu dute programa horietan.

Eta **ikus-entzunezko komunikazioaren eremuan**, «Komunikazioa erakundeetan» ikastaroaren hirugarren edizioa eskaini da. 16 ikaslek hartu dute parte bertan.

IKERKETA ETA TRANSFERENTZIA

HUHEZI Fakultatean Ikerketa eta Transferentzia arloa hiru eremutan -Hezkuntzan, Komunikazioan eta Lankidetzan- ari da garatzen. Eremu horietan hiru ikerlerro nagusi identifikatzen dira:

- Kooperatibismoa, autoeraketa eta giza garapen iraunkorra.
- Berrikuntza eta esku-hartzea gizarte kulturantzun eta eleaniztunetan.
- Berrikuntza eta esku-hartzea hezkuntza inklusiboan.

Horrela, oinarrizko hiru jakintza-arlo horiek bost eremu zehatzetara eraman ditugu: Unibertsitate-eremura, Lanbide Heziketara, Komunikazio-eremura, Hezkuntza Arautuaren eremura, Kooperatibismo eta Gizarte Berrikuntzaren eremura, eta horietan, bereziki, garai honetako gizarte-erronketan zentratu gara. Alegia, Erakundeen kultura eta barne-prozesuak, Berrikuntzaren inguruko prozesuak, eta Trataera metodologikoak.

Ikerlerro eta eremu horien azpian hainbat ikerketatalde daude, eta bertan, 2017-2018 ikasturtean, guztira 49 artikulua argitaratu dira (horietatik 11 inpaktuzko ertaineko zerrendetako aldizkarietan), 3 liburu oso eta 5 liburu-kapitulu. 19 komunikazio nazioarteko



eta estatuko kongresuetan (horietatik, 5 argiratu dira). Horietatik guztietatik 23 euskaraz argitaratu dira. Horrez gain, 18 ikerketa-proiektutan parte hartu dugu (horietatik 7 Erkidegoko eta 2 Europako deialdi lehiakorretan lortutakoak, eta beste 9 hitzarmen edo kontratu bidezkoak), eta 43 transferentzia-ekimen burutu dira erakunde publiko eta pribatuetan. Horrez gain, 14 ikerketa-jardunaldi antolatu dira, eta gizarteko 63 zabalkunde- edo dibulgazio-ekintzatan parte hartu dugu.

HIRUGARREN ZIKLOA

► Doktorego-programak

2017-2018 ikasturtean 25 lagun izan ditugu matrikulatuta HUHEZIKo bi doktorego-programetan.

- EKINTZAILITASUNEAN, KOOPERATIBISMOAN ETA BERRIKUNTZAREN KUDEAKETAN doktorego-programa: Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza Fakultatearekin batera kudeatutako *Ekintzailetasunean, Kooperatibismoan eta Berrikuntzaren Kudeaketan* doktorego-programan doktoregai bat egon da matrikulatuta.
- BERRIKUNTZA ETA ESKU-HARTZEA HEZKUNTZAN doktorego-programa: Universitat de Vic - Central de Catalunya (UVic-UCC) unibertsitatearekin batera, *Berrikuntza eta Esku-hartzea Hezkuntzan* doktorego-programaren inplementazioa garatzen ari gara. Programa honetan 24 doktoregai egon dira matrikulatuta, eta, epealdi honetan, horietako 2 doktoregai -Ainhoa Moyua eta Ane Urizar (nazioarteko aipamenarekin)- beren tesiaren defentsa egin dute. Bi kasuetan, *Bikain Cum Laude* kalifikazioa lortu dute.
- Doktorego-programako ekinbide berezi bezala, MUK eta Vic-eko Unibertsitateak ikerketa-jardunaldi bat antolatu dugu honako helburu hauekin:
 - Doktoregaien komunikazio-trebetasunak sustatzea, bai ahozkoak bai idatzizkoak,

beren ikerketaren emaitzak zientzialarien komunitateari eta gizarteari helarazteko gai direla bermatzeko.

- Doktoregaiak eta doktorego-programari atxikitako ikerketa-taldeetako kideek ikerketa-esperientziak parteka ditzaten bide ematea, eta azterketa kritikoaren eta parte-hartzaile guztien ekarpenen bidez haiek aberastea.
- Unibertsitate bietako ikerketa-taldeek elkarlanean garatutako ikerketa-proiektuak bultzatzea.

Ikerketa-jardunaldi honetan, 2 komunikazio eta 11 poster aurkeztu ziren.

Horrela, HUHEZIn jadanik 43 doktore ditugu (langileen %66,2), eta horietatik 30 akreditatuta daude (%69,8). Horrez gain, 22 lankide doktore izateko bidean daude.



EGOERA EKONOMIKO- FINANTZARIOA



2017-2018 ikasturteko sarrerak 9.312,15 mila eurokoak izan dira, eta gastuak 9.112,64 mila eurokoak. Beraz, aldeko emaitza 199,51 mila eurokoa izan da.

Ikasturte honetan egindako ohiko inbertsioak 157,75 mila eurokoak izan dira; finantzaketa Mondragon Taldeko FEpletatik etorri da, eta, neurri txikiagoan, funts bereki edo propioetatik.

Balantzeari dagokionez, Egoera Balantzearen Aktibo eta Pasiboa, 2018-08-31n, 9.561,82 mila eurokoa da.

FAKULTATEA ZENBAKITAN

HUHEZI ZENBAKITAN	2017-2018
Presentziazko graduetakoko ikasleak	886
Lehen Hezkuntza	435
Haur Hezkuntza	259
Ikus-entzunezko Komunikazioa	192
Blended modalitateko ikasleak	216
Unibertsitate-masterretako ikasleak	114
Aditu-tituluetako ikasleak	78
Doktoretzako ikasleak	25
Nazioarteko mugikortasuneko ikasleak	129
HUHEZItik atzerrira joandako ikasleak	117
Atzerritik HUHEZItira etorritako ikasleak	12
Mantentze-aurrekontua (*)	9.312,15
Ohiko inbertsioak (*)	157,75
Langileak	114

(*) milaka eurotan



ANTOLAKETA-EGITURA

DEKANOA:

Begoña Pedrosa

ZUZENDARITZA KONTSEILUA:

Begoña Pedrosa: Fakultateko dekanoa.

Arantza Ozaeta: Zuzendari akademikoa.

Jose Ramon Vitoria: Ikerketa eta Transferentzia arloko zuzendaria.

Eneritz Garro: Hezkuntza-berrikuntza departamentuko zuzendaria.

Ainara Artetxe: Hezkuntza-berrikuntza departamentuko zuzendaria.

Goio Arana: Komunikazioa departamentuko zuzendaria.

Ainara Udaondo: Lanki departamentuko eta Profesionalen Prestakuntzako zuzendaria.

Ainhoa Leturiaga: Administrazio- eta finantza-zuzendaria.

KONTSEILU ERREKTOREA:

Amaia Agirre: lehendakaria.

Igor Ortega: lehendakariordea.

Leire Laskurain: idazkaria.

Bokalak:

Amaia Pavón.

Amelia Barquín.

Maidier Herce.

Javier Marcos.

Jose Ramon Zubizarreta.

Samuel Garcia.

Ane Irazabal.

Peio Manterola.

Oihane Gartzia.



LANGILEAK

Hau guztia ez litzateke posible izango proiektu honetan inplikatu eta parte hartu duten pertsona hauen guztien konpromiso sendorik gabe:

AGIRRE GARCIA NEREA AGIRREURRETA SERNA ANE ALKORTA
ALDABAL ENERITZ ALONSO AMEZUA IDURRE ALZOLA MAIZTEGUI
NEREA AMEZUA VALERA NAIARA APRAIZ ANSOLA MARIKARMEN
ARANA ARRIETA GOIO ARANBURU ETXEGOIEN LEIRE AREBIOTORRE
LANDETA EUNATE AREXOLALEIBA BITERI JULEN ARISTI NARBAIZA
JON ARNEDEO GAZTELURRUTIA MAIALEN ARRATIBEL INSAUSTI
NEKANE ARREGI LANDA ITZIAR ARREGI IRIBECAMPOS AITZIBER
ARREGI MURGIONDO XABIER ARRESE ERRASTI GOTZONE ARRIARAN
OLALDE IÑIGO ARRUTI ETXEBERRIA NEREA ARTETXE ARANAZ
AINARA ARTETXE LAZKANO MELTXOR ASTIGARRAGA AGIRRE IDOIA
ASTIGARRAGA ETXEBARRIA EUGENIO AZKARATE ITURBE OXEL
AZKUE LETE IKER AZPEITIA EIZAGIRRE AGURTZANE BARANDIARAN
ARTEAGA ALEXANDER BARNES JULIA DIANA BARQUIN LOPEZ
AMELIA BASTERRETXEA URKIRI IHINTZA BEITIA SASIAIN LOREDI
BELATEGI UNZUETA ONINTZA BIAIN BIDARTE AMAIA BIDEAIN
ENEKO BIKUÑA MUNDUATE AGURTZANE BOLIBAR ZABALA ANDER
BONILLA BERMEJO MARI CARMEN CABALLERO RAMIREZ IZASKUN
CARPINTERO MARTIN ANA BELEN EGAÑA CASAS IRATXE EGAÑA OSA
TXEMA EGIZABAL OLLOKIEGI DIEGO EIZAGIRRE EIZAGIRRE ANDONI
ESCANDON LUCEA EUNATE ESKIBEL MONTERO NAGORE GALINDEZ
NAFARRATE EDURNE GALLETEBEITIA GABIOLA IBAN GARAGARZA
LEKUBE GARBIÑE GARRO LARRAÑAGA ENERITZ GASTAÑAZATORRE
GORROTXATEGUI IDURRE GOIKOETXEA AGIRRE NEKANE GONZALEZ
ARENAZA AINHOA GOÑI EIZMENDI MAITE GOSTIN ELORZA ANDRES
IBARRONDO DEL CANTO ASIER IMAZ AGIRRE AINARA INSAUSTI
AMIANO ARIANE IÑURRATEGI IRIZAR NAGORE IÑURRITEGI LEON
NEKANE IPIÑA LARRAÑAGA NAGORE IRIZAR MEZO ASIER JIMENEZ
ARRIETA OLAIA KANPANDEGI BERROTARAN ARITZ KAREAGA
IRAZABALBEITIA ARIANE LARRAÑAGA ELORZA AINHOA LARREA
ARANA, MIREIA LARREA HERMIDA IÑAKI LASKURAIN BIDABURU
LEIRE LAUZURIKA ARRONDO ASIER LERSUNDI PEREZ AMAIA
LETURIAGA LETONA AINHOA LEZETA RUIZ DE ALEGRIA ION LOPEZ
SALAS NEREA LOYOLA IDIAKEZ AITZOL MADINABEITIA MEDRANO
MONIKA MARTIARTU ZUGASTI AMAIA MARTINEZ GORROTXATEGI
AGURTZANE MATA OYANGUREN OIHANA MONGELOS GARCIA
ARANTZA MURCIANO EIZAGIRRE AROA ORMAZABAL GORRIA MIREN
ORTEGA SUNSUNDEGI IGOR OTADUY MARAURI OIHANA OZAETA
ELORZA ARANTZA PAVON ARRIZABALAGA AMAIA PEDROSA LOBATO
BEGOÑA PEREZ LIZARRALDE KARMELE PEREZ RODRIGUEZ ANA
PUEBLA AGIRRE MAITANE QUINTAS QUINTAS MARTA RALLA YUSTA
BEÑAT RAMIREZ DE OKARIZ TELLERIA IÑIGO RAMIREZ ROJO IRATXE
RIBAGUDA EGURROLA ANA RODRIGUEZ GARITANO JONE RUIZ DE
AZUA GALDOS EDURNE SAGASTA ERRASTI PILI SALEGI ARRUTI EIDER
SANCHEZ MORAN YERA SANTA CRUZ ELORZA SIRATS SANTAMARIA
GOIKURIA IMANOL SARASUA MARITXALAR JON SAROBE EGIGUREN
AITZIBER UDAONDO ALBERDI AINARA URBIETA GURRUTXAGA
JAIONE URIARTE ZABALA LEIRE URIZAR ZUGAZAGOITIA ANE MIREN
VITORIA GALLASTEGI JOSE RAMON ZABALA IBARRA ANE MIREN ZIA
SOTO NAIARA ZUBEROGOITIA ESPILLA AITOR ZUBIA ZUBIZARRETA
NEREA ZUFIAURRE ASTIGARRAGA MIREN



**Mondragon
Unibertsitatea**

**Humanitate eta Hezkuntza
Zientzien Fakultatea**

Dorleta, z/g
20540 ESKORIATZA
Gipuzkoa
Tel. 943 71 41 57
harrera.huhezi@mondragon.edu

Otalora 31
20550 ARETXABALETA
Gipuzkoa
Tel. 943 71 31 40
harrera.huhezi@mondragon.edu

www.mondragon.edu/huhezi

ENTITATE LAGUNTZAILEA

